

Goi

Goierritarra aldizkaria

399 zenbakia 2011ko apirilak 15



**ZAINZAILEA
ZAINDU**



HISTORIAREN IKERTZAILEA

**MERTXE
URTEAGA**

ALTAMIR
JATETXEA

Altamiran kirola eta elikadura uztartzen ditugu egunero-egunero. Gorputza zaindu eta aisaldiaz gozatuko duzu GURE EGUNEKO MENUA DASTATUZ.

Altamirako kirolgunea / Ordizia
T. 685 794 755 / altamira@igeni.net



San Benito ikastola

KALITATEZKO HEZKUNTZA INTEGRALA

izen emate epea:

Maiatzaren
2tik 11ra

- Ikasleak ezagutzen ditugu.
- Tutoritza eta orientazio pertsonalizatuak.
- Irakasle talde finko eta konprometitua.
- Eraitza onak.

Garraioa
Jargela

BATXILERGOAK

- Zientziak eta Teknologiak
- Giza eta Gizarte zientziak



www.sanbenitoikastola.net

Tel. 943880800 Email: lazkao@ikastola.net LAZKAO



Medikuntza eta zirugian lizentziatuak:

I. Fdez. Or naburu Dra.
(Medikuntza estetikoan masterra)
A. Ramirez Baigorri Dra.

- GANTZA KIRURGIARIK GABE KENTZEN DUGU
ultrasoinuen bidez

NOBEDADEA

ULTRASHAPE CONTOUR I Metodoa

- laser depilazioa
- aurpegiaren gaztetzea
- peeling-ak, betetzeak
- toxina botulinikoa: zimurrak
- aurpegi eta gorputzeko mesoterapia
- gizentasuna, zelulitisa, masajeak
- azal azpiko terapia: LPG

Kursal


ZENTRO MEDIKUA


www.kursal.es

943 88 22 51

Garmendia Otaola, 7 - behea

BEASAIN





Ekaitz Goikoetxea

Aupa Irati!
Lurre ez ezik, lurarrak e
ikeauta gailtzen aspaldin.
Hilaete zaamanau lurrei lur
ematen, hilaete bizihusten,
gorpu, hiltzeko denborik
bae. Japonen lurreatzea
eabaki ziñan itsasok, gue-
ganaño hurreatzea ikarak.
Hitzen morfologi ta seman-
tikek e nekez eusten zieten
etenbaeko moimendu sis-
mikoi, natur indarren uneo-
roko zimikoi ta bokalak jun-

etorriin zailtzen kontsonante arteko amildegitan, esko-
lak eskala ta eskalak eskala bihurtzeaino. Bai, Richter-
enean be, elkartasunen eskalan ondutako azken hau-
rrek ikasgelatako paetatan zintzilikaute ein nahi izan
zienau guk lurrek lurpeautako anai-arreba omen.

Sorminetan gailtzen, bai, hamasei-hamazazpi urte-
ko ikaslekin; goizero berrik munduatzen dien zerupe
hontan mundue berritu nahien, ta Miyagi, Iwate ta
Fukushima zeharkau ondoenen, Lazkao, Ordizi, Zizur
ta Burlatan barna luzau nahi izan diñau bidaia litera-
ria ikasgelan landue ikasgelako lau paetatatik kanpoa
eta, ta adinkide ditteun neska-mutikokin konpartitzea

Bat gatozenen ezin batea jun ta batea jun nahi deunen ezin bat etorri, nola deitzen zaion horri?

aberasbide deula sinestuta; akordeoi, zeharkako txiru-
la ta biolontxelon konpañin, guk ondutako ipui, olerki,
elkarrizketa ta melodik ezautaraztea helburu. Bide-
ertzak leundu ta mundue 360°ko angelun boroiltzen
ikasi diñau, gorputz bereko atal izaten, alkarrengana
arrimatzen, herrimatzen.

Bai, maiatzan hoitabiare ai den arrimatzen, baño
usteañat guri gehixeo kostauko zaiula herrimatzen. Bat
gatozenen ezin batea jun ta batea jun nahi deunen
ezin bat etorri, nola deitzen zaion horri? Garai, amets,
bide ta aukera berrik dizkiñau, baño badakin, pausok
ematen dienen urratsak nahi ta bestela jai. Eta asko ez
danen aski, gaizki. Ta ze nahi den esatea, nik sortu
nahi diñat.

360°... beti gustau izan zaiak zirkun-
ferentzik (bakik matematikarion
burun borobilek zirkunferentzi itxurea
hartze_ik) trazatzea, ziurrenea behiñe
ondo ateatzten ez zaizkialako, ta ikas-
lek parre itten dielako. Gustatze zaiz-
kiak algara une hoik, eskue arbelea
eaman, tiza-hautsei astiñaldi bat
eman ta algarak baretzeako beti lor-
tzen baitiat zirkunferentzi zirkunfe-
rentzigo bat ittea. Saiatzea dek kon-
tue. Ta bakik; pierreberbi. Zenbat ta
zirkunferentzi zirkunferentzigo in,
zirkulun azalarea ordunda haundigoa
izango_ek, ta zirkulun azalarea haundigoa badek, bakik... hi ta
ni kaitzen gean tokin hue re sartuko_ek.


Sartzeko sortu in behar dala alegie... o... e_neok oso ziur, sor-
tzeko sartu in beharko_ek akaso... baino igual tziok, guk alkarre-
kin baino leno ikasiko die ta ak eta ok hitz beren alkarbizitzen.
Sortu ta sartu ta bildu. Bai, herri hontan aurreapausok ematen ta
etorkizune sortzen jarraitu (hasi, badek garaie!) behar badiu, ez
zeok zirkulun barrua sartu ta bildu ta sortu beste erremedioik.
Dan-dan- danok; zirkuluk ez dik eta ezker ta eskuin, gain ta azpiz
ulertzen. Zirkunferentzik e hasi ta bukau beti ez diela toki beren
itten sinisten hasi beharko diau noizbait!

Mundue re norbean zilborren hasi ta bukatze ez dan bezela.

Etorkizune sortzen jarraitu behar badiu, ez zeok zirkulun barrua sartu ta bildu ta sortu beste erremedioik.

Japonia, Garoña, nuklearrak, eolikok... Beldur nauk Garoñan
itxiera gure gertuko arrisku-zirkulun barrun sartzen dalako soilik
eskatzen dala. Ez al zaik miserablea iruitzen? Igual tziuk Japonik
o Frantzik su hartzen badie re. O igual tzaigula erakusten die
behiñipiñ gure euneroko eikerek, gobernu, enpresa erraldoi ta
interes danan gainetio gu geu baikaittuk nuklearrai tira itten diou-
nak. Eak baditek ean ardurea, ta ez gutxi gaiñea, baiño, norbean
ohiturrak aldatzen hasten ez gean bittarten, gaiñeako eztabaida
danak antzuk ta indarrik pekok ittuk. Ta nik ez diat esan nahi XX.
mende hasierako zaldi-gurdita bueltau behar geanik; zurie ez
dana ez dek beltza, ta beltza ez dana ez dek zurie. Egoera bako-
itzek bee erdigunea dik ta ez badik sortu in beharko diau. Sortu
ta bildu, herrie ta mundue zaku beren.

Bitarten, sormen on!



Irati Goikoetxea

**GOIERRITARRA diruz laguntzen
duten erakundeak:**

Alzaga, Arama,
Itsasondo eta
Ligorretakoko udalak



Gipuzkoako Foru Aldundia

Goi
Goierritarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetzak: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

**GOIERRITARRAK ez du bere gain
hartzten derrigorrez, aldizkarian
adierazitako esanen eta iritzien
erantzukizunik.**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Gutxienez ere Goierritarron hiru laurdenak
euskaldunak gara, baina gure euskararen erabilera
ez da ezagutzaren neurri horri dagokiona.

Goierriin ere Korrika euskaraz

Iritsi zaigu 2011ko Korrika Goierriira. Korrikak biurtero, beste hainbat ekitaldik bezala, euskara ikasi, hobetu eta erabili beharra gogorarazten digu Euskal Herrian zehar bizi garen guztioi: euskaraz mintzatzen dakigunoi eta ez dakitenei. Dakigunoi, dakiguna hobetuz eta erabiliz bizitzeko eta ez dakitenei, lehenbailehen ikasi eta gurekin batera erabiltzeko. Euskaraz bizi nahi dugunok, ez dakitenek mugatuak eta bortxatuak gertatzen gara askotan, baina baita jakin arren hitz egiten ez dutenek izorratuak ere. Hizkuntza bat, dakitenek hitz egiten ez dutelako galtzen da, baina baita ez dakitenek erabiltzen uzten ez dutelako ere.

Aurtengo Korrikak ere, beste behin, euskara maitatu eta erabiltzeko daukagun premia larria jartzen digu begien aurrean. Gutxienezko errespeturik, asmo onik eta maitasunik gabe, ezinezkoa da euskara ikastea eta ikasi gabe ezinezkoa da erabiltzea eta erabiltzen laguntzea. Beraz, gizarteak euskararekiko eta euskaldunokiko errespetu, asmo on eta maitasun handiagok izatea lortu behar dugu euskara ikasi, hobetu eta erabiltzeko.

Gaur hemen bildu gara Goierriko hainbat talde politikotako, sindikatutako nahiz kulturako eta beste arlo batzuetako pertsonak aurtengo Korrikari ongi-etorri egiteko eta korrika eginez parte hartzeko. Eskertzekoa da borondate ona eta ahalegina. Eskerrik asko guztioi, baina biltze hau ez dadila usadiozko edo ohiturazko zerbait izan. Biltze honek hausnarketa eginaraz diezagula geure jokabideez eta portaerez, geure arteko harremanetako hizkuntzaz, geure komunikazio-erremintaz, geure harre-

manetako hizkuntza-politikaz.


Korrika egin behar dugu eta Goierriin egin behar dugu. Gutxienez ere Goierritarron hiru laurdenak euskaldunak gara, baina gure euskararen erabilera ez da ezagutzaren neurri horri dagokiona. Ezagutza maila horrek ardura eta erantzukizuna ere sortzen dizkigu gaurko Euskal Herrian beste eskualde batzuentzat erreferentzia izateko, baina ez gara behar genukeen neurriko erreferentzia. Gaurkoa bezalakoetan oso euskaldun agertzen gara, baina geure gizartea ez dugu antolatu egunero eskualdeko toki eta zerbitzu guztietan euskaraz bizi ahal izateko moduan. Gure etxeetan, familietan, kaleetan, lagunarteetan, lanean, ikasketetan, jolasetan, aisialdian, tabernetan, kiroleetan, elkarteetan, parrandetan, kantuan, musikan, zineetan, erreibindikazioetan, tratuetan, salerosketetan, administrazioetan, dendetan, dokumentuetan..., euskarak ez du behar lukeen neurri, leku, erabilpen eta mailarik. Gure gizarteko bizikera asko aldatu beharrean gaude eta korrika aldatu ere denbora gure aurka dago-eta.

Ongi datorkigu Korrika hori dena gogorarazteko, ongi horretaz guztiaz gogoeta egiteko eta geure bizimoldeak aldatzen hasiteko. 2011ko Korrika honek, orain arte egin ez dugun hori egiteko bidean jar gaitzala.

2011 honetan, GOIERRIN ERE KORRIKA EUSKARAZ egin dezagula eta denok, euskalakari bilaka gaitezela.

Manifestuaren sinatzaileak:

Alternatiba, Aralar, EA, EAJ, Ezker Abertzalea, ELA, LAB, Hiru, EHNE, AEK, Goierritarra, Goierriko Hitz, Nazioen Mundua



MUJIKA
LIBURUDENDA
Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA



ondoeta

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com
© 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72
201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

Ehunekoak

Maizpide euskaltea

Ez dira gutxi ehunekoak adierazteko garaian izaten ditugun zalantzak eta buruhausteak. Aurrerantzean horrelakorik gerta ez dadin, hona hemen Euskaltzaindiak emandako gomendioak:

Multzoa eta azpimultzoa

Ehunekoetan bi kopuru izaten ditugu: **%36**

- ✗ Lehenengoak multzoa adierazten du (normalean 100 izaten da) eta bigarrenak azpimultzoa.
- ✗ Multzoaren zenbakia letraz edo hizkiz adierazi nahi dugunean **'-ko'** eta **'-tik'** kasu-markak erabiliko ditugu:
 - ✓ Erdialdeko Amerikako politikarietan, **ehuneko** hogeita hamasei ustelak dira.
 - ✓ Erdialdeko Amerikako politikarietan, **ebunetik** hogeita hamasei ustelak dira.
- ✗ Azpimultzoari dagokionez, **mugagabe**an adieraziko dugu, **beti ere ezaguna ez bada!**
 - ✓ Erdialdeko Amerikako politikarietan, **ehuneko/etik** hogeita hamasei (%36) herritarren dirua lapurtzen iaioa da!
 - ✓ Erdialdeko Amerikako politikarietan, **ehuneko/etik** hogeita hamaseik (%36k) badaki ustelkeria zer den.
 - ✓ Erdialdeko Amerikako politikarietan, **ehuneko/etik** hogeita hamaseiri (%36ri) "azkarregi" aberastea gustatzen zaio.
- ✗ Ehuneko jakin batez ari baldin bagara (ezaguna denean edo


aurrez esan dugunean), **artikulua** behar-beharrezkoa da:

- ✓ *Euribor delakoaren igoera dela eta, aurrerantzean ordaindu beharko duen %7a astakeria iruditzen zaio gure Manoliri.*
- ✓ *Ekudorreko hauteskundeetan Rafael Correa ezkertiarak botoen %75 lortu du; gainontzeko %25a beste bost alderdi politikorentzat izan da.*

Ehunekoa ala portzentaia?

Euskara batuan lehenengoa erabili behar dugu, bigarrena ez baitu jaso Euskaltzaindiaren Hiztegi Batuak. Portzentaje hitza ere erabiltzen dugu, baina ehuneko hobesteko gomendia egin du Euskaltzaindiak.

Eskolako nesken %99 nirekin maiteminduta dago !



ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Euskaldunen %15a ez da inoiz Euskal Herritik atera.
2. Kataluniako gazteen %25ari asteburuero mendira irtetea gustatzen zaio.
3. Europarren %21ek ez du sekula santan futbol-zelairik zapaldu.
4. Venezuelako iazko hauteskundeetan Hugo Chavez-ek lortutako %60 gutxitxo iruditzen zaio Georges Bush-i.

OHARRA: Lehenengoan %15 behar du; bigarreanean, %25i; hirugarrena zuzena da; laugarrengoan, %60a.

ZAHARRA • BERRI

IGELTSERITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak



Zazpi hiriburuetako ibilaldia etapaz etapa

Goierriko erretiratu talde batek, 'Zazpi Hiriburuak Oinez', egitasmoarekin, Euskal Herriko hiriburuak mendiz mendi lotzea du helburu. Iaz hasi ziren ekimen honekin, eta aurtan, udaberriarekin batera, berriro ere, astean behin (eguraldia lagun), etapa bat egiten dute, 25-30 kilometro ingurukoa. Orain artean, ibilbide bakoitzaren kronika Goierriko Hitzan jaso badute ere, hemendik aurrera, hilean behin, Goierritarra aldizkarian egingo dugu mendizaleon jarraipena.



Ollogoien etik abiatu eta Lokiz mendikatera bidean, 21. ibilbidean.

19.ibilbidea: Lizarraga-Zudairi

Martxoaren 10ean, 41 mendizalek Lizarragatik Zudairira joan ziren. Zeharkaldi polit honetan, Urbasako pagadiak, goi lautada, Pilatoren Balkoia, Urederra jaiotzen den lekua eta amildegiak ikusiz eta gozatuz ibili ziren.

Ibilbidea eta denborak

Lizarraga (600 m)- S.Adrian basiliza (564 m; 3,7 km; 1:05 ordu)- Las Choas (1.175 m; 11,2 km; 2:55)- Dulantz gailurra (1.243 m; 15,1 km; 4:00)- Gollano mendatea (1.035 m; 22 km; 5:25)- Portuzahargaina (940 m; 26,6 km; 6:30)- Zudairi (572 m; 32,6 km; 7:50 ordu). Gorabehera metatuak: igoeran: 790 m; jaitsieran: 820 m.

20.ibilbidea: Zudairi-Ollogoien

Martxoaren 22an, 40 mendizalek, Ameskoabarrenetik hasi eta Lokiz mendilerroaren zehar, zainzuriak eta boilurrak lantzen diren haranera joan ziren. Lokizko mendiak Ameskoa haranak bereizten dituzte. Zeharkaldi honek, amildegien ertzak zeharkatuz, Allin eta Lana haranak osatzen dituzten herrien eta lautaden ikuspegi politaz gozatzeko aukera ematen du.

Ibilbidea eta denborak:

Zudairi(572 m)- Barindano (564 m; 0,7 km; 11 minutu)- S. Kosme basiliza (1.116 m; 7,7 km; 1:45 ordu)- Aramendia mendatea (1.080 m; 10,5 km; 2:35)- Sartzaleta gaina (1.055 m; 12,2 km; 3:05)- Santiago basiliza (960 m; 15,3 km; 4:15)- Gauza herria (595 m; 18,1 km; 5:05)- Ollogoien (610 m; 20,8 km; 5:45 ordu). Gorabehera metatuak: igoeran: 755 m; jaitsieran: 715 m.

21.ibilbidea: Ollogoien-Zuñiga

Apirilaren 5ean, 42 mendizalek, zeharkaldi bikain honetan Ollobarren zuloko paraje polita ikusteko aukera izan zuten. Jarraian, Lokiz mendiaren bigarren zatian ibili ziren. Geroago, Lana haranaren punturik altuenak gainik gain igaro zituzten. Bukatzeko, Arabaren muga gunek jarraituz, Zuñigara iritsi ziren.

Ibilbidea eta denborak:

Ollogoien (610m)- Ollobarren lezea (850 m; 2 km; 40 minutu.)- Lander borda (970 m; 8 km; 2:05 ordu)- Bitoria gailurra (1.051 m; 9,3 km; 2:35)- Zikilamendi gaina (1.090 m; 11,7 km; 3:05)- Narkueko mendatea (1.130 m; 14,8 km; 3:50)- Otxamendi gaina (1.258 m; 17,6 km; 5:00)- Berrabia mendatea (1.009 m; 22,2 km; 6:10) - Beatas basiliza (625 m; 27, 4 km; 7:20)- Zuñiga (575 m; 28,8 km; 7:35 ordu). Gorabehera metatuak: igoeran: 825 m; jaitsieran: 860 m.

Datuen laburpena

	1.Zatia	2.Zatia	3.Zatia	4.Zatia	5.Zatia	6.Zatia	7.Zatia	Guztira
Etapak	3	3	3	7	10	4	5	35
Gailurrak	9	10	11	18	32	23	11	114
Desnibela Igoeran	3265	3802	3671	7875	9535	4826	5726	38700
Desnibela Jaitsieran	3316	3613	3823	7513	9531	4996	5283	38075
Ibilbideak (Km)	88	85	70	155	235	112	130	875
Ordutegia (Ordutan)	21:00	22:15	20:30	46:45	66:30	30:00	32:00	239:00
Abiadura (km/h)	4,2	3,8	3,4	3,3	3,5	3,7	4	3,7

www.jakintza.net



Batxilergoa jakintzaikastolan

Zientifiko Teknikoa eta
Osasun Zientziak
Giza eta Gizarte Zientziak

Euskal heziketa bermatuz
IKT arloan aintzindariak

Altamira auzoa Z/G

Telef. 943 16 05 40

ordizia@ikastola.net



jakintzaikastola



Euskadi
2 0 0 5



GOIERRIKO hitza^{info}

Egin harpidedun

GOIERRITARRA ☐
urtean 29 euro

HITZA ☐
urtean 70 euro

GOIERRITARRA+HITZA ☐
urtean 75 euro

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	

902-82 02 01 (Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 beheha • Beasain



Enrike Enparantza



“Herriarrek ondo ulertu dute material organikoaren bilketa”

Goierriko hainbat herritan material organikoa biltzeko edukiontzi marroia jarria du Sasieta Mankomunitateak dagoeneko. Herri horietako datuen arabera, %47ak bereizten du material organikoa. Zein irakurketa egiten duzue?

Gustura gaude. Kontutan izan aurretik esperientzi pilotoa egin zen beste eskualdeetan datu hoberena %25ekoa izan zela. Guk bagenekien hemen Goierri kanpaina ona eginez gero herritarrek ondo erantzungo zutela. Hasteko ez dago gaizki, baina noski hobetu beharra daukagu.

Kalitateari dagokionean, zer moduzko bilketak egiten ari dira?

Ezin hobeak dira. Konposta egiten den plantan karakterizazioak egiten dizkigute eta beti %98-99ko garbitasunarekin. Herriarrek ondo ulertu dute zertarako den bilketa.

Zer bota eta zer ez bota, gomendiorik gogoratu beharrik ba al dago?

Normalean ez. Gehiena garbi dago, baina beti daude zalantza txikiak edo garaiko kasuak. Esate baterako, belarra moztzen denean edo marisko, mejilloi, almeja oskolak eta horrelakoekin zer egin. Noski, denak bota daitezke.

Bilketak zenbatero egiten dituzue?

Neguan astean behin egin dugu eta ez du arazorik sortu. Udan ikusiko dugu, agian sarriago hustu beharko da. Beharraren arabera.

Nora eramaten duzue bildutako material organikoa?

Gipuzkoan, hondakinekin konposta egiteko planta bakarra dago. Azpeitiko Lapatxera eramaten dugu.

9 hilabeteko esperientziaren arabera, zerbait aldatuko edo hobetuko zenukete?

Bilketa edo sistema erabat baldintzatzen duena poltsa konpostagarriak erabiltzeko beharra da. Honek asko zailtzen du sistema. Hau ez dago gure esku eta oraingoz horrela beharko du, baina ari gara saiatzen ahal den modu errezenean egiteko.

Lazkaon, material organikoarentzako zabor poltsak eskuratzeko makina jarri duzue.

Aurreko galderaren harira dator makina hau. Orain probetan ari gara Lazkaon, baina asmoa, herri guztietan jartzekoa da.

Lazkaoren kasuan, giltzaren orde, txartela erabiltzen da edukiontzia irekitzeko. Zein abantaila dauka?

Herritararentzat errezagoa da karteran eraman dezakelako txartela. Bestalde abantaila nagusia da hobari edo bonifikazio sistema ahalbidetzen duela. Hau da, birziklatzen dutenak saritu egingo dira. Hori da zaborren etorkizuna.

Goierriko lorategietako materialarekin egindako konposta banatzen ari zarete, dohainik, egunotan. Zein da opari honen helburua?

Alde batetik herritarrek ezagutu eta probatu dezatela ateratzen den konposta. Bestetik hortan ari direnei eskertzea bere lana. Eta azkenik berriak animatzea.

Goierriko gainerako herrietara noiz zabalduko duzue zerbitzu berria?

Orain, uda aurretik, Ordizian egingo dugu eta agian txikiagoren bat ere bai. Urtea bukatzerako espero dugu gehienetara ailegatzeko.

Nola animatuko zenituztekete, material organikoa birziklatzeko uko egin dioten herritarrek?

Egiten ari den beste bizilagun batekin hitzegitea animatuko nuke. Denek berdina esaten digute, ematen duena baina askoz errezagoa dela eta ia zaborrik gabe gelditzen direla.

ugartemendi,6 20200 Beasain www.beasainip.net

tel: 943 88 07 53



**ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA
BATXILERGOA**

maiatzaren 3an 18:30ean, ate irekiak



**GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIEN
BATXILERGOA**

**IKASGAI BATZUK
INGELESEZ
EGIN DAITEZKE**

maiatzaren 2tik 11ra, aurrematrikula epea



**ARTE
BATXILERGOA**

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**





Mertxe Urteaga arkeologoa:

“XI. mendera arteko gure historia lantzeko modu bakarra arkeologia da”

Lazkaotarra da Mertxe Urteaga. Arkeologoa da. Irungo Oiasso Erromatar Museoaren museoaren zuzendaria eta Arkeolan Fundazioko kidea ere bai. Arkeologiaren bitartez, gure herriaren historia argitzen egiten du lan.

Arkeologiak eta espeleologiak beste altxor bat bistaratu digu Aralarren: Arritzagako meategia. Lan horretan, tartean, zu zeu zaude.

Arkeologiaren aldetik garrantzia handia dauka. Baina horrez gain, oso estetikoa da. Azaldu diren zangek eta erretenez ez dakit zenbat mende izango dituzten. Oso paisaje berezia eraiki da. Karobien artean, geruza batzuk daude, mineralekin. Geruza horiek kanporatu egin zituzten eta hutsuneak gelditu ziren. Hutsuneek 400 metro baino gehiago izango dituzte. Barruan, landare oso bereziak ateratzen dira. Hezetasunaren eta tenperaturaren aldetik babesgune bat bihurtu da. Ikustekoa da, barruan, zein landare mota ateratzen den. Bestetik, ondoan, minerala jasota gero geratu zen lurra, oso biguna zen, eta lautadaxo bat sortu da. Belardi bat ateratzen da. Ez da bakarrik ikusten gizakiak orain dela ez dakit zenbat urte egindako lan bat, horrekin batera, naturak egin duena ere ikusten da. Erabat harrituta gelditu nintzen.

Kezka da, hori guztia nola tratatu. Balore batzuk daude ondarearen aldetik, baina beste balore horiek ere nola landu behar dira? Ez da erraza! Ibilbideak eginez gero, hondatu egingo da. Beraz hor dago koska: nola antolatu, nola aztertu eta nola aurkeztu gizartearen aurrean.

Zein garrantzia dauka aurkikuntza honek?

Meazulo horren kasuan, datatu egin da. Sarrera oso estua da. Zaila. Hortik aurrera ere, ibiltzeko, nahiko arriskutsua da. Nahiz eta baldintza horiek izan, barruan, kata bat egin da, zulotxo bat. Hor agertutako ikatza datatu egin da eta brontze ertaineko lanak direla eman du datazio horrek.

Aldamenenean ere badaude arrasto gehiago. Putzuak badaude, azalean egindako harrobi txikiak... Ikusten da sua erabili zutela minerala biguntzeko eta errazago ateratzeko. Konpleju nahiko handia da. Erromatar garaiko aztarnak ere azaldu dira. Nahiko logikoa da. Meatzaritza horren neurria ikusita, erromatarrek hori lana egitea nahiko logikoa da. Atal hori ere aztertze dago. Momentuz egin dena da, historiaurreko gauza bat dela ziurtatzea.

Espero zenuten ala ezustekoa izan da?

Gu miaketak egiten, lan prozesu baten ondotik hasten gara. Meatzaritzaren aztarnak bilatzen, orain dela ia 30 urte hasi ginen. Susmo hori izan dugu. Erromatarrek etorri ziren eta nola aurkitu zuten hemengo zilar altxorra? Bertakoek esanda. Beste lurraldeetan ere jarraitu zuten sistema izan zen. Zilarra hemen hustiatzen zen, erromatarrek etorri baino lehen. Hemengo aztarnak topatu ondoren, hasi ginen, zilarra dagoen leku bakoitzean miaketak egiten. Gauzak azaltzen dira. Gero konturatu ginen, zilarrarekin batera, erromatarrek, kobrea ere hustiatu zutela. Kobrezko aztarnategien bila hasi ginen gero. Eta non dago historikoki, Gipuzkoan, aztarnategirik handiena?

Arritzaga: Duela 3.000 urte zulatzen hasitako meategia

Martxoaren 22an eman zuten Arkeolan Fundazioko eta Felix Ugarte Elkarteko ordezkariak, Aralarren, Arritzagan egindako azken aurkikuntzaren berri: duela 3.000-3.300 urte bitartean zulatzen hasi ziren meatzeak aurkitu dituzte. Suedian, karbono 14ren probak egin dituzte, zein garaitako aztarnak aurkitu dituzten zehazteko. Emaizten arabera, Brontze Arotik garai ugartan ibili direla ikusi da. Duela 2.800 urteko aztarnak ere badaude, baita erromatarren garaiak ere. Erdi Aroan ere, bertatik minerala ateratzen zen. Mertxe Urteaga, Arkeolan Fundazioaren presidentek adierazi duenez, "mendebaldean horrelako kasu gutxi aurkitu dira, Galesen, Europako erdi aldean eta penintsulan bakarren batzuk".

Lanabesak aurkitu dituzte, zulo, zanga eta galeria batzuetan. Zanga batek adibidez, zortzi metrorainoko sakonera eta 400 metroko luzera dauka. 50 metroko sakonera iristen diren galeriak ere aurki daitezke inguruetan. Felix Ugarteko Txomin Ugalderen esanetan, "teknikoki aurreraturak zeuden, eta argi dago ez zela autogestiorako meategi bat, produkzio handia zeukana zela ikus baidateke". Meatzean lanea ibiltzen zirenak adituak omen ziren. Orein adar bat ere aurkitu dute indusketetan; garai hartan mineralak ateratzen erabiltzen zen erremintetako bat da hori. Ikerlarien esanetan, kobrea asko dago bertan, beraz, gehienbat, mineral hori ustiatzen zela uste da. Kobrez gain, beruna, eztainua eta nikela ere aurkitu dituzte.

"Duela ez dakit zenbat urte gizakiak egin zuenaz gain, urte hauetan guztietan naturak egindako lana ikusten da Arritzagan".



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTOLOGOA
KOL. Zko: 649 RPS: 223/07

TEL./FAX: 943 88 92 87 SAN INAZIO KALEA, 2 20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)





biok
zerbitzuak

Tel 943 88 44 00
Faxa 943 80 51 27
www.biokzerbitzuak.com
Ordizia Urdaneta, 7

kudeaketa
fiskala
kontablea
merkatala
laborala



xetai
diseinuzko altzari eta sukaldeak

www.xetai.net
nafarroa etorbidea 1, solairuartera - 20200 beasain

Aralarren. Ezagutzen zen XVIII. mendean herrixka bat eraiki zela mineral hori hustiatzeko. Adierazle horrekin aurrera egiten duzu.

Hara joan, XVIII. mendeko herriaren azterketa ikusi, eta orain badakigu Eliza non zegoen, labeak ere bai... uharka, kanala, gorpilak... Ondoren, inguruak miatzea etorri zen. Begiak eginda ditugu. Badakigu gauza bat noiz den naturala eta noiz ez den naturala. Meatzaritzaaren arrastoak ikusten ziren eta zuloa ere topatu genuen. Hurrengo pausua, gauzak topatzea izan zen: zeramika puskak, orein adar bat ere azaldu zen... Aurretik lana eginda eramaten da, oinarri eta programa batekin hasten gara lanean. Susmoak dituzulako hasten zara iker-tzen.

Arkeologoen lanari esker, historiaren pasarte ugari ezagutzen ari gara.

Esan beharra dago, Gipuzkoan, XI. mendera arte ez dagoela idatzirik. Lehendabiziko aldiz, Gipuzkoa hitza, Altxoko San Salbadorreko monasterioak egiten duen dokumentu batean azaltzen da. XI. mendera arte, gure historia lantzeko modu bakarra, arkeologia da. Ez dago besterik, ez dagoelako idatzirik. Katalunia aldean, IX. mendean, orube bat saldutakoan, dokumentu bat egiten zuten. Horretan hemen, XV-XVI. mendean hasi zen. Ohitura gutxi izan dugu idatzeko. Beste gizarte mota bat izan gara. Derrigorrez arkeologia egin behar da beraz.

Erromatar garaian, idatzi klasikoetan Oiaso agertzen zen. Batzuk esaten zuten Oiarzunen zegoela baina garbi zegoen Irunen zegoela. Aipamen batzuk badaude. Baina erromatar garaia pasatu ondoren, putzu batean sartu ginen eta ez zegoen ezer ere. Egoera hori ez da hemengoak bakarrik. Europa Iparraldean gauza bera gertatu zen. Baina gaur bikingoen gizartea oso ondo ezagutzen dugu. Gizarte hori, arkeologiaren bidez ezagutu da. Suedian, arkeologia egiten, XVIII. mendearen bukaeran hasi ziren. Gure kasuan, gure sustraia ez ditugu ezagutzen, kolokan daude.

Arkeologia lana egiteaz gain, Irungo Oiaso Erromatar Museorekin zuzendaria ere bazara. Erromatar garaiko altxor garrantzitsuak aurkitu dituzue.

Hemen beti, Paleolito garaia aztertu izan da, margoak, magdaleniensea, euskara oso hizkuntza zaharra izan dela eta beti historiaurre aldera jo dugu. Nik gogoratzen dut, Valladolidetik etorri nintzenean, erromatar, brontze edo burdin aroko aztarnak ez zirela lantzen. Gero eta zaharragoa hobeto. Eta hor hutsune handia zegoen. Gure helburua izan da, hutsune hori betetzea.

Badago beste garai bat, Aro Iluna deitu diogu. Hor ez da ezer ere ezagutzen. Erromatar garai ondoren eta hiribilduak sortu baino lehen dagoen garaia da Aro Iluna. Hiribilduak adibidez, Ordizia eta Segura dira Goierri. Hiribildua sortzerakoan,

eskubideen zerrenda idatzi zen. Seguran adibidez, badakigu, hiribildua sortu aurretik bazegoela herrixka bat, San Andres ermitaren inguruan. Hiribilduak abiapuntutzat hartu genituen, denboran atzera egiteko. Erromatar garaia ere hartu genuen, baina kasu horretan, aurrera egiteko. Jauzi horren bidez, ea Aro Ilunera iristen ginen. Orain dela 15 urte lortu genuen kate osoa eraikitzea eta horretarako oso datu politak atera ziren Urbian eta Aizkorriko mendietan. Artzaintzarekin lotuta dauden aztarnategiek bete dute hutsune hori.

Erromatarrek aipatu ditugu. Gipuzkoan erromatarrik ez zela esan izan da urte askoan.

Hori beste ikuspegi bat da, eta ulertzekoa da. Hor ez da historia egin. Antropologia egin da, gure orainaldia nolakoa den azaltzeko. Zergatik gara euskaldunak? Historia erabili da galdera horri erantzuteko. Erromatarrek ez ziren hemen egon edo zergatik ez ziren erromatarrek hemen sartu? Aurka egin genielako, gure indarrak baliatuta... eta horregatik mantendu zen gure nortasun berezi hori. Oso logikoa da

historia erabiltzea gizarteak duen galdera bati erantzuteko. Gero ikusten duzu, Europa mailan Erromak izan zuen jarrera eta guk euskaldunok inperioaren pinporta gara? Judutarrak ere altxatu ziren, britainiarrak ere bai. Eta zer gertatu zen? Erromako gudarosteak moztu egin zituzten. Ez zuten beste aukerarik ematen. Eta guk lortu genuen erromatarren aurka egitea? Hori ez da posible.

Dauden aipamenak ikusi eta txipa aldatuta, datuak bilatzen hasi ginen. Eta jakina, Aralarreko puntan ere han daude, Urbiako puntan ere han daude erromatarren aztarnak. Lortu dugu behintzat, beste modu batera irakurtzea. Orain esaten duguna, erromatarrei esker, erromatarren antolakuntzaren barruan egotea, abantaila izan zela. Seguraski erromatarrek eman ziguten, historian zehar gero egin dugun bidea egiteko behar genituen tresnak, teknologikoki. Mailaz aldatu genuen. Beti jartzen dugun Amazonas aldean dagoen egoeraren adibidea: bertako leinuek bat egiten dute oraingo gizartearekin edo bestela nola mantenduko dira? Hori izan zen, erromatarrek zirenean,

Europa osoan eman zen jarrera.

Erromanizazioa hitza baztertu dugu.

Garbi dago, erromatarrek ez zuten bide hori landu. Hor ere konparaketa bat egin behar da, antropologia egin behar da. Erromak ez zuen plangintza bat egin, esateko, goazen baskoiak gure erara aldatzera. Plan bat egingo dugu beraien ohitura guztiak-eta aldatzeko eta gure hartzeko. Ezta pentsatu ere! Erromatarrek alde horretatik oso praktikoa izan ziren. Eskatzen zuten gauza bakarra zen: zergak ordaintzea eta Enperadorearen izena goraiatzeko. Bestela, bertako erakundeak mantendu ziren, bertako hizkuntza mantendu zen... bertako

“Gipuzkoan, XI. mendera arte ez dago idatzirik.

Ohitura gutxi izan dugu idatzeko. Beste gizarte mota bat izan gara. Derrigorrez arkeologia egin behar da beraz”

“Ez zaigu gehiegi gustatzen erromatarrek gurean izan zirela onartzea, nahiago dugu salbuespen bat izatea eta Asterix eta Obelisen egoera horretan sartzea eta pentsatzea, inperioko pinporta bakarra izan garela”



Garai hartan,
irakasleak uda
garaiko oporrak
aprobetxatuz,
indusketak
egitera joaten
ziren. Gure
proposamena
izan zen, gu
arkeologoak
izango ginela,
baina egunero.

Erakundeen babesa

Batzuei kosta egin omen zaie Erromatarrek gure artean izan zirela onartzea.

Gogoratzen dut Irunen, Santiago kalean, erromatar portua atera zenean, jendea gurekin haserre zegoen. Kopeta ilunarekin etortzen zen jendea eta hala esaten zigun, ea nola esan genezakeen erromatarra zela. Nola dakizue erromatarra dela? Sigilata hor dago eta oso zera-mika adierazgarria da. Hemen erromatarrik ez zela egon esaten zuen behin eta berriz.

Horrelako egoera baten aurrean zerbait egin beharra zegoen. Erabaki bat hartu genuen. Mundu akademikoa oso garrantzitsua da. Aurkikuntza honekin kongresoetara joaten baldin bagara, oso ondo. Baina gure helburua ez da mundu akademiko hori. Gure helburua, gizartea da, herria. Gizartea ez badugu gure alde jartzen, ez dugu aurrera egingo. Horrela hasi ginen erakusketak eta hitzaldiak ematen.

Museoak asko lagunduko zuen.

Asko lagundu du bai. Hala ere kosta egiten zaigu erromatarrek hemen izan zirela onartzea, ez zaigu gehiegi gustatzen, nahiago dugu salbuespen bat izatea eta Asterix eta Obelisen egoera horretan sartzea eta pentsatzea, inperioko pinporta bakarra izan garela.

Erakunde publikoen laguntzarik izaten al da horrelako ikerketetarako?

Beti izan dugu harreman ona. 1987an, Foru Aldundiaren laguntzarekin antolatu genuen ikastaro bat, eta ikastaro horren helburua izan zen, arkeologia profesionaltasun mailan lantzea. Garai hartan, Institutuko edo Unibertsitateko irakasleak uda garaiko oporrak aprobetxatuz, indusketak egitera joaten ziren. Gure proposamena izan zen, gu arkeologoak izango ginela, baina egunero. Foru Aldundiak ulertu zuen zer egin nahi genuen, babesa eman zigun ikastaro hura antolatzeko. Ikastaro hura izan zen, orain egiten den arkeologiaren abiapuntua. Han finkatu ziren ardatz nagusiak. Foru Aldundia beti egon da lan hori babesten. Urte asko dira.



Ikastetxe askotatik joaten dira Oiasso muserora bisitan. Kasualitatea lagun, Mertxe Urteaga lazkaotarrari argazkiak ateratzen ari ginela, San Benito ikastolako 1. mailakoak azaldu ziren bertan. Argazkian daude denak.

jainko-jainkosarik aldatzeko agindurik ez zuten eman. Baina alderantziz: erromatar bizimodua askoz ere interesgarriagoa zen. Erromatarra izanda, eskubide guztiak etortzen ziren nortasun berri horrekin batera. Erromatarra izatea ez zen erromatarra izan nahi dut esatea eta kitto. Erromak eman behar zuen eskubide hori. Eta eskubide horrekin batera etortzen zen, jabea izateko aukera, ezkontza legala izateko aukera, edo erakundeetan parte hartzeko aukera. Bertako goi mailako gizarteak berehala status berezi hori lortu zuen. Ahaleginak egin zituzten status berri hori lortzeko. Ondoren, ugaltzen joan zen egoera hori. Baina erromatar senatuak edo Erromatar enperadoreak ez zuen erromanizatzeko agindurik eman.

Horregatik, erromanizazio hitza baztertu egin da. Erromanitatea erabiltzen da.

Erromatarren garaian ondoren zer izan zen?

V. mendean, ez dugu ezagutzen erromatar sistemaren aztarnarik. Badakigu bisigotuak sartzen direla penintsula barruan. Bisigotuak, erromatarren jarraitzaileak dira baina erromatar ezaugarria erabiltzen dugunean, ez du balio, bisigotuen egoera erabiltzeko. Hemen zer gertatu zen ez dakigu baina aldaketa handia egon zen. Adibidez, Irunen, zulo eta zundaketa asko egin dugu eta V. mendetik aurrerako aztarnarik ez dugu topatu. Beraz, pentsatzen dugu, hemen ez zela inor bizi V. mendetik aurrera. Eta galdera da? V. mendetik aurrera, non daude hemengo biztanleak? Galdera hori planteatu ondoren, hasi ginen, horrelako egoeren inguruko datuak eta albisteak jasotzen.

Orain beste eredu bat erabiltzen ari gara. Nahiko konplikatu da: erromatar garaiko sistema horren zutabeak, hiriak izan ziren. Erdi Aroan, hiriak, hiribilduak dira, eskubideen zerrenda bat, Forua, ematen zelako. Hiribilduen ezaugarrien artean,

harresia dago eta barruko lurra era erregularrean banatuta dago eta bere kaleak eta orubeak antolatuta daude. Hiriak izan ziren legalki eta itxuraz.

Erromatar garaian gauza bera gertatzen zen. Hiri izateko oraindik itxuraz, gauza garrantzitsuagoak egoten ziren: bainuetxea, tenplua, harresia, hilerria, plaza nagusia, foroa... behar ziren hiri bat izateko. Erromatar garaiko sistemaren zutabe nagusiak hiriak izan ziren. Oiasso hiri bat izan zen azken finean. Oiasson ez dugu V. mendetik aurrerako aztarnarik topatzen. Non daude biztanle horiek? Gazteluen ereduak erabiltzen ari gara. Castela izena latina da, Castelum edo plurales Castela. Badirudi, erromatar garaiko hirien nortasun juridikoa jaso zuten erakundeak izan zirela. Castela horietatik, gaztelua esango dugu, gero, berriro nortasun juridiko hori pasatu zela hiribilduetara. Gu ari gara, gaztelu horien biko. Baditugu datu batzuk.

Gazteluen garaian, jendea non bizi zen?

Gazteluen ereduak aipatu dugu. Gaztelua, babestokia da. Toki txikia eta suposatzen da, eskualdeko agintarien egoitza zela. Horrelako rola jokatzeko zuten. Baina jende normala, baserrietan egongo zen sakabanatuta, edo herrixka txikietan. Baina lehengo hirien nortasuna, gazteluek jaso zuten. Gazteluek izango zuten, beraien agintaria. Baina gaztelutik kanpo, seguraski, gizarte sakabanatuta biziko zen edo multzo txikietan banatuta.

Hiribilduak sortzen direnean, herrixka horietatik berriro jendea joaten da hiribilduetara bizitzeko. Adibide oso polita dago, Leintz Gatzagan. Aizorrotz gaztelua dago. Gatzaga hiribildua. Eta aldamenean, ezagutzen ziren, gutxienez, lau herrixka. Dokumentazioaren bidez lortu dugu, jakitea, herrixka horietatik hiribildura joan zela jendea bizitzera eta orduan hustu egin zirela herrixkak. Gazteluen indarra desegin egin zen.

Gazteluetan ez zen populazioa pilatzen. Jendea babesteko

Bokazioa

Arkeologiak jendea erakartzen al du?

Lan gogorra da, oso gogorra. Ez da erraza jendea erakartzea. Alde batetik, teknika bat erabiltzea da. Disziplina askotako tresnak hartzen ditu. Topografia marrazkiak egiteko... Bestetik, lan fisikoa da. Eta normalean, mendi puntatatan egoten dira aztarnak. Eta hiri barruan egoten badira, normalean, obra bat duzu atzetik, kontrastista bat, makinak dituzu inguruan... Prestaketa ezberdinak behar dira. Eta zure bidea egiten duzun arte, denbora asko behar da. Lan fisikoa eta lan intelektuala batera egin behar dira. Ez dago arkeologia egiterik, bokaziorik gabe. Bestela, azkenean, erre egiten zara, gogorra delako. Arkeologiak ematen dizkizun opariak izango ez balira!

Ez zeneukan asmo handirik arkeologiara zuzentzeko.

Ideiarik ere ez neukan arkeologiaz. Valladolidera ikastera joan nintzen. Lehenengo ikasturteko irakasle bat, Jerman Delibes izan zen. Oso gaztea zen. Delibestarra zen eta hitz egiteko oso modu egokia zuen... Oso irakasle ona zen. Hor kateatu nintzen. Baina ni Artearen Historia egitera joan nintzen. Eta alderantziz, oso irakasle txarra tokatu zitzaidan, eta baztertu egin nuen. Valladolid euskaldunontzat oso toki gogorra zen. Mendirik gabe... paisaiari garrantzia handia ematen diogu eta arkeologia egiteak kanpora ateratzeko aukera ematen zigun. Astebukaeretan joaten ginen miaketak egitera eta ni sarritan apuntatzen nintzen, hiritik ateratzeko beste aitzakia bat zen. Zamora joaten ginen.

Artearen Historia egitera joan nintzen, margotzen nuelako. Trebetasun handia nuen margotzeko. Batzuetan nire buruari esaten diot: arkeologiaren munduan sartu dituzun ordu guztiak margotzen sartu bazenitu, orain nola margotuko ote zenuen? Arreta asko eskatzen du arkeologiak. Oso absorbatzailea da eta ia ez dizu denborarik uzten beste ezer ere egiteko. Ez naiz damutzen eh?

Erretiroa hartzen duzunerako hor izango duzu pintura.

Ez dut ezagutu arkeologo erretiraturik.



over Urraki
Bidaietan adituak

**Erreserbatu zure udako oporrak
aurrerapenez eta lortu
% 50 arteko deskontua**

Kale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxa: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es

PSIKOLOGI KLINIKOA



Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

**Helduen,
umeen,
bikoteen eta
sexologi
tratamenduak**

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promoziok, Eraikuntzak,
Erreformatzak...

www.zubara.es
943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA



ziren gazteluak. Ermita baten inguruan herrixka txikiak... Ermita derrigorrezkoa da Erdi Aroan. Elizarik gabe ez dago ezer egiterik.

Beste datu bitxi bat badago. Azkoitian azaldu da. San Martin de Iraurgi ermitan azaldu da. Hor, oraindik VII. mendean, hilotiak, errautsak dira, erromatar garaiko erara eginda daude hilotiak. Ez daude gorputzak osorik lurperatuta. Erreta daude eta kutxetan sartuak. Horrek esan nahi du, seguraski, VII. eta VIII. mendean, oraindik, jentilak zirela. Errito horrek bat egiten du lehengo paganismoarekin. Eta oraindik VII-VIII. mendean gaude. Mosaikoa osatzeko beste datu bat dago hor. Momentuan piezak dira, baina lehen ez zegoen piezarik eta orain bai.

Urte asko beharko dira puzzle osoa osatzeko.

Denbora behar da. Jendea behar da. Gu izan gara, esparru horiek lantzen lehenengoak baina metatu egin behar da. Taldeak ere berritzen ari dira, jende berria dator eta elkarlanari esker etorriko dira emaitzak.

Goierrin erromatar aztarna garbirik azaldu al da?

Ez, baina azalduko dira. Lazkaomendiko Argintzao baseria, jatorrizko izena du, bere etimologia, latinetik dator. Lazkaoko, Beasaingo eta Ordiziako laudatak... azalduko dira bai aztarnak.


Orendain eta Baliarrain izenen etimologia latina da.

Etxean bertan arkeologia lanean aritzeaz gain, Pompeian ere ibilia zara. Zer moduzko esperientzia izan zen?

Pompeian aritua naiz bai eta Aste Santuan ere berriro joango naiz. Han ere asko ikasten da. Ikastaro trinkoa izaten da. Pompeiako plano urbanoa buruan sartzea, oso datu inportantea da. Normalean Irunen aurkitzen ditugun aztarnak izaten dira, ormen oinarriak, harriz egindako beheko baila, harri bat hemen eta bestea han eta ormaren norabidea irudikatu behar dugu. Pompeian, etxebizitzak, osoak daude. Ikusten duzu, atarian sartzeko atea, leihoa, balkoia eta teilatua. Eta ondoan beste bat eta beste bat. Kalean jarraituz, ikusten duzu daudela, ataria, denda, denda, ataria... Irungo Colon Pasealekutik zoazela, gauza bera da. Iaz 10 egun egon nintzen eta aurten ere beste 10 egun emango ditut.

Joaten garen taldea, oso ona da. Ikastaro trinkoa egiten duzu 10 egunetan.

Hemen aurkitutako aztarnategiei esker, Europa mailan, goi mailako sareetan sartuak gaude. Informazioa hor bideratzen da, nahiko azkar. Guk ere aukera daukagu informazio ona jasotzeko.





Goierritarra aldizkariaren gehigarria

MOTORRA 2011



Pneumatikoen garrantzia

Petrolio aurrezte argudiatuta, 110 kilometroko abiadura ezin da gainditu autobideetan eta autopistetan, gutxienez, ekainaren 30era arte, Espainiako Gobernuak jarritako mugaren arabera. Aldi berean, autoen pneumatikoak aldatu eta A kalifikazio energetikoa duten gurpilak jartzeagatik, gurpileko, 20 euroko dirulaguntzak ere agindu zituen.

Azken gai honi helduta, Xabier Aldanondorengana jo dugu, informazio gehiago eskuratu nahian. Lehenik eta behin, oraindik, A kalifikazio duen pneumatikorik ez dagoela esan digu. "2012tik aurrera, fabrikatzaile bakoitzak jarri beharko dio etiketa. Badaude kontsumo baxuko kubiertak. roze gutxi daukatenak. Pirellik edo Michelinek badituzte. Subentzioa izango duten? Guk ez dakigu ezer ere, prentsak esaten duena bakarrik dakigu".

Pneumatiko ona

Hala ere, Aldanondok azpimarratu nahi izan duenez, pneumatikoa ondo aukeratzeak eta ondo zaintzeak, berebiziko garrantzia du erregaiaren aurreztean. Pneumatiko onak, segurtasuna emateaz gain, erregaiaren kontsumoan ere eragina izango baitu. "Presioak garrantzia handia dauka. Pneumatiko onak, bustia dagoenean, heldu egin behar dio. Kilometroak egitea ere garrantzitsua da. Prezioari ere begiratu behar zaio", dio Aldanondok.

Negukoak eta udakoak

Eguraldia bustia denerako eta elurra denerako, neguko pneumatikoak gero eta gehiago merkaturatzen ari dira azkenaldian. Neguko eta guretzat betiko pneumatikoen arteko ezberdintasun-





Garaje ETXE-AZPI S.L.



☎ 943 88 10 61 - 943 88 60 58
E-mail: etxe_azpi@telefonica.net
ORMAIZTEGI

ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala



**Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko lllantak
filtroak, olioak, engrasea, frenu pastilak,
tubo eskapeak, bateriak, harezko txorrotadak**

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

nak zeintzuk diren galdetu diogu Aldanondori. "Negukoen gomaren osagaia, hotzarekin heltzekoa da, hotzarekin hobeto heltzekoa. Marrazkia ere ezberdina dauka. Ezkama motako marrazkia dauka, gako tipoa egiten du, elurretan heldu egiten du, tako batetik tako asko aterako balitu bezala egiten du. Elur hori bota egiten du kubiarta erditik eta hurrengo bueltarako berriz ere heltzeko prest dago. Elurraren gainean abantaila handia dauka. Tako onak badauzka, ia-ia kateekin ibiltzearen pare da. Portu batzuetan, kateak edo neguko kubiartak eskatzen dituzte".

Zenbait herrialdetan, derrigorrezkoa da neguan horrelako gupilak erabiltzea. "Orain arte hemen ez zegoen ohiturarik baina aurten publizitate asko egin zaio neguko kubiartari, errepedeko pantailatan behin baino gehiagotan aipatu dituzte. Azkeneko urteetan askoz ere gehiago ari da saltzen neguko kubiarta deitzen zaiona", gaineratu du.

Beasaindarraren ustez, neguko pneumatikoak, "eguraldi oso txarrarekin abantaila handiak dauzka. Eta eguraldi onarekin, desabantaila gutxi. Ur askorekin edo elurrarekin, abantaila handiak dauzka. Betikoak baino askoz ere hobeak dira. Batzuk urte guztian ibiltzen dituzte negukoak eta beste batzuek urte erdian batzuk eta bestean besteak. Dena den, hemen, oraindik normalena, udakoak edo normalak deitzen diogunak erabiltzea da. Mendira asko joaten direnak, baserrietan bizi direnak, aldapa handiak igo behar dituztenak, edo eskiatzera joaten direnak...neguan, negukoak jartzea gomendatuko nituzke".

Prezioan, garestixeagoak dira negukoak, "baina gehiegi ez. Neurri estandarretan, %15 bat garestiago aterako da".

"Presio gutxirekin ibilita, askoz ere kilometro gutxiago egiten da. Heldu ere okerrago egiten du eta gehiago gastatzen du".

Pneumatikoei buruzko aholkuak

●● **Neurri egokia:** Garrantzitsua da pneumatikoaren neurria ondo aukeratzea. "Karga eta abiadura kontuan hartu behar da. Neurri bakoitzean aukera handia dago. Estuxeagoak, zabalagoak... eta ondo aukeratu behar da. Prezioari ere begiratu behar zaio. Diru asko balio duten autoak eta diru gutxiago balio duten autoak daude. Nik uste dut kubiartak proportzioan joan behar direla. Ezin da zazpi milioi pezetako kotxea eduki eta kubiarta merkeenak jartzea. Gertatzen da eh? Ezin den bezala, 500 euroko kotxea eduki eta 300 euro kubiartatan gastatzea. Eta hori ere asko gertatzen da".

●● **Presio egokia:** auto bakoitzak eskatzen duena. "Normalean kubiarta bat ez litzateke jaitsi behar baina beti jaitsten da zerbait. Kotxea ondo ibiltzeko garaian, kontsumo aldetik ere bai, ondo heltzeko garaian edo kilometroak egiteko garaian diferentzia handia dagoela esaten dute. Presio gutxirekin ibilita, askoz ere kilometro gutxiago egiten da. Heldu ere okerrago egiten du eta gehiago gastatzen du".

●● **1,6 mm-ra dagoen seinalera iritsitakoan, aldatu.** "Txibato batzuk edukitzen dituzte kubiarta guztiek. 1,6 milimetrora egoten da txibatua. Pneumatikoaren marrazkia txibatoraino iristen denean, aldatzeko garaia dela esan nahi du".

●● **Autoa gozo ibili.** "Zerikusi handia dago, autoa nola ibiltzen den. Kubiarta eta kotxe berdinarekin, pertsona batek 10.000 km egin ditzake eta beste batek 40.000 km. Gehiena txoferraren arabera dago. Bat-batean azeleratzeak eta franatzeak zerikusi ikaragarria daukate. Ibilbide motak ere badu zerikusia. Ez da berdina autobia batean, xuabe-xuabe joatea edo Mandubian gora eta behera ibiltzea".

Autowag



☎ 943 888 254

☎ 943 888 266

Faxa: 943 888 105

N-1 errepidea, 419 Km

BEASAIN

ZUBIKOETA GASOLINDEGIA

☎ 943 18 04 86 - faxa: 943 18 04 87

Zubikoeta industrialdea, 1 ATAUN



● Gasolina, gasoila A eta B

● Berogailuentzat gasoil banatzailea

● Autoaren garbiketa moeta guztiak



Exkursioak
Ezkontzak
Kirol taldeak
Lantegiak
Ikastolak
Sagardotegiak

www.goierrialdea.com

Tel.: 943 885969
Fax.: 943 804049
info@goierrialdea.com
Gudugarreta auzoa
BEASAIN



 **IRIZAR**



Irizar, mende bat betea eta hazten

www.irizar.com



*Sendian programaren barruan
bainbat bitarteko daude,
tartean eguneko zentroak.
Argazkian Ordiziakoaren
inaugurazioa 2009-ko
azaroan.*

Adineko ezinduak etxean dituztenentzako baliabideak eskaintzen ditu Sendian programak

“Zaintzailea gaizki baldin badago, nekez egongo da gaixoa ere ondo”

Sendian progama

Etxean adineko ezinduek edo gaixoak zaintzen dituzten pertsonen laguntza da Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sendian programaren helburua. Zaintzaileek izan ohi dituzten desoreka pertsonal eta familiarrei konponbidea ematea eta adineko pertsonen eskaintzen zaien arreta hobetzen duten laguntzarako baliabideak garatzen ditu Sendiak-ek.

Lan gogorra da zaintzailearena eta zaintzailea bera ere zaindu egin behar dela aldarrikatu nahi du Foru Aldundiak. "Zaintzailea bera zaintzeko programa da Sendian. Kalitatea irabazten dute, adinduek eta zaintzaileek. Zaintzaileak askotan gain hartzen du. Adindua bera gaizki dago eta zaintzailea ere bai. Zaintzailea gaixotzen joaten da. Ezin du hainbeste lanekin eta emozionalki karga handia dauka. Zure familia da. Aita edo ama bada, senarra edo emaztea... Alde batetik, zainketaren pisua daukazu eta bestetik sentimenduen pisua ere oso handia da. Batzutan, kulpabilitatea ere badago. Nekatuta zaude, ezin duzu gehiago, baina daukazun harremana hor dago... eta lotsa ematen dizu hori azaltzea".

Zaintza-harreman kalitatea bermatzeko, hainbat baliabide eskaintzen du Sendian programak, Matia Innovareen bitartez: Familientzako prestakuntza, Laguntza Taldea eta Laguntza psikologikoa. Zegaman eta Seguran, Familientzako Prestakuntza tailerrak izan dira martxoan eta apirilean. Ordizian ere prestakuntza ikastaroa egiteko asmoa daukate. Udaletako Gizarte Zerbitzuen bidez antolatzen dira ikastaroak eta beraiek dira familiei informazio osoa ematen dietenak. "Batzuk ez dakite zerbitzu hauen berri. Horregatik, garrantzitsua da Gizarte Zerbitzuetara gerturatzea. Informazio guztia bideratzen dute", dio Eba Azkaratek.

Aukerez baliatu

Foru Aldundiko Eba Azkaratek adineko ezinduek etxean dituzten zaintzaileak Sendian programan parte hartzera gonbidatu nahi ditu, era horretan, zaintzailearen nahiz gaixoaren bizi kalitatea hobetu daitekeelako. "Askotan, zaintzailea zaintzen duena baino okerrago dago. Kasu askotan, senar-emazteak dira eta bikotea zaindu behar denean, biak dira adinduek.

Hori karga handia da. Gaur egun onartu da, oreka mantendu behar dela familien beharren eta adinduen behararen artean. Beldur asko daude, hemen nahiko itxiak gara eta norbere arazoei buruz hitz egitea kosta egiten da. Baina nik uste dut, jendeak gero eta gehiago eskatzen duela laguntza. Laguntza psikologikoaren errekurtsoa ere gero eta jende gehiagok erabiltzen du. Laguntza taldearena ere bai".

Gero eta eskaera gehiago

Orain dela 12 urte hasi zen Sendian programa hau, "modu esperimental bat bezala. Oso jende gutxi eskatzen zuen. Jendea ez zen ausartzen eskatzera. Nahiko berria zen eta jendeak beldurra zuen. Gaur egun, jende askok eskatzen du, oso zabaldua dago. Beste modu batean onartzen ditu gauzak", dio Eba Azkaratek.

Esate baterako, "zaintzailea bera zaindu dadin edo denbora izan dezan bere gauzetarako, adineko ezinduentzat behin-behineko egonaldiak izaten dira egoitzetan. 15 egunekoak, asteburukoak... Lehenengo egonaldia oso gogorra izaten da bai adinduentzako, bai zaintzailearentzako. Baina esperientziak erakusten digunez, jendeak errepikatu egiten du. Nahiko pozik gelditzen da egonaldiekin. Zaintzaileak eskubidea dauka hilabetean behin, asteburu bat edo bost egun, beretzat hartzeko. Errekurtso ona da. Zaintzaileari aukera ematen dio bidaien bat egiteko, atseden hartzeko, deskonektatzeko... Asteburuko edo hilabete bateko egonaldiak izaten dira. Bitan banatu daitezke adibidez. Oso zabaldua dago. Familia askok eskatzen dute, urtean behin oportetara joateko edo beren gauzak egiteko... egoitzetara eramatea. Errekurtso hauekin, kalitatea gehiago eskaintzen da", azpimarratu du Azkaratek.

Laguntza teknikoak ezagutzea ere oso garrantzitsua da Azkaraterentzat. "Gizarte Zerbitzuen bitartez, laguntza teknikoak erosteko aukera dago. Ohe artikulatuak, komuna ondo jartzeko laguntza bereziak... Orientazioa ere eskaintzen da. Zainketa erraztuko duten aukera asko dago".

Sendian programaren baliabideetarikoa bat, Laguntza Taldea da. Goierriren kasuan, bi talde daude; Ordizian eta Beasainen. Hamabostean behin elkartzen dira, Gloria Martin psikologoaren gidaritzapean. Ordiziako taldean izan gara, eta beso zabalik hartu gaituzte, ondo bai baita-kite zaintzailea izatea zer den eta zaintzailea bera zaintzeak zein garrantzia daukan. Mezu hori zabaldu nahi izan dute.

Antzeko egoeran edo egoera berdinean dauden lagunak elkartzen dira Laguntza Taldean. Talde honetan dauden gehienak, Alzheimer edo demenzia gaixotasunak dituztenen zaintzaileak dira. Dena den, talde hauek, edo-

zein patologia duten gaixoen zaintzaileei zuzenduak daude. Taldekideek etxean daukate adineko gaixoa edo ezindua. Ama, aita, emaztea edo senarra zaintzen ari direnak dira guztiak. Ama-semeen kasuan, 9 urteren ondoren, senarra-aita hil berria zaie.

Entzun eta hitz egin

Esperientziak trukatzear gain, emozioei eta sentimenduei buruz hitz egiten dute. "Laguntza Taldean sentitzen duguna konpartitzen dugu. Erruduntasuna, beldurra... Horiek dira emozio nagusiak", dio Gloria Martinek. "Elkarlaguntzen dugu", dio beste zaintzaile batek. "Bakoitzak bere esperientzia

kontatzen du, bakoitzak nola jokatzeko duen, nola sentitzen dena kontatzen du... Talde terapia da. Elkarrekin negar dugu askotan. Eta parre ere bai", dio lazkaotarrak. Ordiziako taldean lazkaotarrak ere badaude, Lazkaon bertan talderik ez dagoelako.

Antzeko egoeran egonda, "bata bestearengan islatzen gara. Niri asko lagundu dit, nire amaren kasuak baino okerragoak daudela ikusita. Hausnarketa egiten lagundu dit. Askok lagundu dit taldeak. Ni neu, askoz ere hobeto nago. Laguntza handia da. Beste era batera ikusten dituzu gauzak. Askotan ez dakigu nola jokatu eta hemen profesionalen laguntza daukagu.

Taldeak asko lagundu dit". "Guk bizi izan dugun egoera talderik gabe... galduta ibiliko ginatke. Are eta gogorragoa litzateke. Familia bat gara. Sentimentu asko dago hemen. Badakizu, entzungo zaituenak ulertuko zaituela, bera ere egoera berdinean dagoelako".

Psikologoak eta taldekideek onartu dutenez, jendea zaila egiten zaio horrelako talde batera gerturatzea. Taldekide batek, honela deskribatu du bere esperientzia: "Momentu batean, egoerak gainditu egin ninduen, ez nekielako nola jokatu. Gizarte laguntzaileak esaten zidan, laguntzeko bitartekoak bazeudela. Baina nik esaten



Ordiziako Laguntza Taldea. Hamabostean behin, biltzen dira Jubilatuen Egoitzan.

nuen, zertarako, ni oso indartsua naiz, nik nola ezingo diot bat arazoari aurre egin. Nik ez dut inolako laguntzarik behar. Taldera etortzea erabaki nuen, oso gaizki nengoen. Askok lagun dit taldera etortzeko”.

Erabakiak hartu behar

Gaixotasun batzuk, urte luze-etako prozesuak izaten dira. Alzheimer edo dementsia kasuak adibidez. Fase ezberdinak izaten ditu gaixoak eta prozesura egokitzen jakin behar dela dio Gloria Martin psikologoak. “Erabakiak hartu egin behar izaten dira askotan, beldurrak baztertu egin behar dira. Adibidez, gaixoa Eguneko Zentrora eramatea ez da pekatua. Askotan, urteetan eta urteetan sartu dizkiguten sinismenak hausnartu egin behar dira. Esate baterako, emakumezkoaren zaintzailearen rola”.

Ordiziako Laguntza Taldean dauden kide batzuk, hainbat erabaki hartu izan dituzte gaixoa bera zein zain-

tzailea bera, zaintzeko. Egoitza batera eramatea, neska bat 24 orduan hartzea, eguneko zentrora eramatea, oporretara joateko behin-behinean egoitza batera eramatea... Denek onartzen dute, horrelako erabakiak hartzea kosta egiten dela, “erabaki ezberdinak hartzeko beldurra izaten da askotan, erruduntasun sentimendua ere izaten da”.

Laguntza onartu

Taldeko gizonetako batek, “zaintzaileak hartu behar izaten duen erabakirik zailena hartu behar izan zuen”, dio Martinek: emaztea egoitza batera eramatea. “Egunero joaten natzaio bisitan. Badakit esku onetan dagoela baina

zuri etxean pertsona bat falta zaizu. Horrelako erabakiak hartzeko, asko pentsatu behar da. Askotan ez dago nik egin dudana egitea besterik”, dio zaintzaileak. Gloria Martin psikologoak ondorengo azalpena eman du: “zaintza ez da etxera mugatzen. Egunero-egunero joaten zaio, eta hori ere zaintzea da. Beste leku batean, eta beste modu batera. Baina zirkusnantziak aldatzen direnean, derrigortuta gaude egokitzen”.

Psikologoak esan digunez, “gizonezkoek errazago onartzen dute laguntza. Gizonezkoak praktikoagoak dira. Emakumezkoek kosta egiten zaie laguntzen uzten, zaintzailearen errola izan delako beti. Baina lehen esan

duguna: gaixotasun hauek prozesu bat izaten dira eta egokitzen jakin behar da. Aldaketa asko izaten dira eta egokitu egin behar da. Prozesu horretan elkarlaguntzan gara. Prozesu bat izaten du gaixoak eta zaintzaileak hasieran bezala zaindu nahi baldin badu, eta laguntzarik, antsietatea eta estresa izango ditugu. Gaixotasunak terminalak ez direnean, urteetako gaixotasunaz hitz egiten ari gara. Eta gu geu zaintzen ez bagara, gaixoa ere ez da ondo egongo”.

Taldeakideek onartu digutenez, “profesionalek laguntzen dute askotan erabaki horiek hartzen. Norbera bakarrik askotan, ez da ausartzen”. “Profesionalek esandakoa egitean, lasaituta bezala sentitzen dira”, dio Martinek. Erabakiak errazago hartzen dira zaintzailea lanean dagoenean. “Baina etxean egonda gehiago kostatzen da. Alaben kasuan askotan, semearen, emaztearen, amaren eta amonaren papera bete behar izaten da”.

Etxean adineko ezinduek zaintzen dituztenentzako laguntza programa da Sendia.

Alzheimerra dutenen kasuan gainera, "ikusten duzu zuk ezagutu duzun pertsona degeneratzen nola ari den egunetik egunera. Beste pertsona baten bihurtzen dira. Ezagutzen ez dugun pertsona horrekin bizitzen ikasi behar dugu. Aita, ama, senarra, emaztea... izan dena izateari utzi dio eta zein pertsona motarekin bizi behar dugun deskubritzen joan behar gara pixkanaka. Gaixotasunari buruzko ezezagutza dago batetik, eta bestetik, norbera noraino aguantatzeko ote den. Zalantzak izaten dira, ondo ari naizen ala gaizki ari naizen...".

Norbera zaindu

"Hurkoa maitatu, norbera bezala dio Bibliak. Nik esaten diet, ni baino hobeto ulertzen duzuela Biblia eta ea zer esan nahi duen esaldi horrek. Ez da egoista izatea, norberaz pentsatzea. Zaintzailea gaizki baldin badago, nekez egongo da gaixoa ere ondo. Hori asko kostatzen da ulertzea. Beti galdetzen dut, hilabete batek dituen 720 orduatik zenbat ordu hartzen diren norberarentzat. Gaixoa ondo egoteko, zaintzailea ere ondo egon behar da. Askotan ematen du pekatua dela nik ere atsedena ditxo bat hartu eta oporretara joatea nire familiarekin. Arnasaldiak hartzeko aukera izaten dira, behin-behinean, gaixoa egoitzetara eraman eta zaintzailea zaintzeko, bere familia zaintzeko. Asko kostatzen da baina gero errepikatu egiten

Baliabide ezberdinak

Sendian Programak baliabide ezberdinak eskaintzen dizkie etxean adineko ezinduek zaintzen dituzten zaintzaileentzat. Ondorengoak dira hiru aukera:

Familiarentzako prestakuntza

Adineko ezinduek zaintzen dituzten familiei laguntzeko bereziki prestatutako ikastaroak dira, familiei zeregin hori behar bezala egiten erakusteko.

Laguntza taldeak

Adineko pertsona ezinduek zaintzen dituzten pertsonei elkar ezagutu eta hitz egiteko aukera ematen zaie, egoera berean dauden beste pertsona batzuen berri izan eta babestuta senti daitezen.

Laguntza psikologikoa

Tratamendu psikologikoko banakako saioak eskaintzen dira, egoera berriak eta aldakorrak hobeto gainditzeko, famili zaintzaileetan sortzen diren estres eta larritasun sentimenduak konfiantza hartuz.



ADINEKO
EZINDUAK
DITUZTEN
FAMILIEI
LAGUNTZEKO
ZERBITZUAK

SENDIAN PROGRAMA

Koordinatzailea:
Matia Gerontologia Institutua
Fundazioa, Ingema

"Erabakiak hartzeko
beldurra izaten da askotan,
erruduntasun sentimendua
ere izaten da".

dute". "Lehenengo oporrak oso txarrak izan ziren", aitortu du zerbitzu hau erabiltzen duen zaintzaileak. "Egun gutxia telefonotik zintzilik pasatzen nuen ea zer moduz zegoen. Baina orain oso ondo".

- × Jabekideen komunitatea osatzea
- × Komunitateen kontabilitatea
- × Akten idazketa
- × Aurrekontuen eskaera
- × Aholkularitza legala
- × e.a.

AUZOKI
Komunitateen administrazioa
Kol. Zenb. 599

Urdaneta 52-behea
ORDIZIA
Tel.: 943 087 486

Kol. zkia.: 764

Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia
Implantologia
Periodontzia

Artikulazio eta ahoko minak
Radiologia digital zerbitzua
Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

Ordizia

Aisialdian euskararen erabilera
sustatzeko ikastaroa

Begiraleek aisialdian euskararen erabilera sustatzeko ikastaroa antolatu dute. Udaleku irekietan aritu nahi duten begiraleak eta hezitzaileak, dinamizatzailerak soziokulturalak eta erakundeetako teknikariak izango dute ikastaroan parte hartzeko aukera. Aisialdiko ekipamenduetan euskara sustatzea, euskararen erabilera areagotzeko motibazio-estrategiak lantzea eta erabilera handitzeko tresnak ikastea dira ikastaroren helburuak.

9 orduko ikastaroa da eta apirilaren 26tik 28ra egingo da, Barrenan, goizeko 10etatik ordu batera. Apirilak 19 baino lehen eman behar da izena Ordiziako Euskara Zerbitzuan (943 805 622 - ebpn@ordizia.org). Ordiziarrek 10 euro ordaindu beharko dituzte eta Ordiziatik kanpokoek, 20 euro.

Ordizia

'Elkarrekin' argazki erakusketa:
naturako elkar ekintzak

Euskal Natura taldeak, Euskal Herriko Unibertsitatearen laguntzarekin prestatu duen 'Elkarrekin' argazki erakusketa ikusgai dago Ordiziako D'Elikatuzen, Landarlan eta Oiangu Parkea Bizirik elkarten eskutik. Maiatzaren 6ra bitartean, naturako 10 argazkilariren formatu handiko 21 argazkiz osatutako bilduma ikusteko aukera dago. Felix Aguado, Antton Alberdi, Pedro Aierbe, Nano Cordovilla, Alex Iturrarte, Iñaki Mezquita, Jose Mari Llavori, Luis Llavori, Mikel Tapia eta Felix Urrutia dira erakusketa osatzen duten argazkien egileak.

Legorreta

Argazki zahar bilketa

Legorretako Udaleko Kultur Batzordeak festetarako egitaraua apaintzeko argazki bilketa antolatu du. Hori horrela izanik, aurreko urteetako jaietako argazkiak formatu dijitallean badi-tuzte, Patxi Ezkiaga Kultur Etxera argazki horiek formatu dijitallean apirilaren 15a baino lehen eramatea eskatu die herri-tarrei. Jai egitaraua egiterakoan horietako batzuk kontutan izango direla.

Segura

Aste Santuko ospakizunak

Apirilak 17, igandea:

11:00etan: Meza Nagusia eta Erramu bedeinkatzea Sorkundetar Komentuan.

12:30ean: Meza eta hazi bedeinkatzea Santa Engrazi ermitan.

Apirilak 21, osteguna:

17:00etan: Azken Afariko meza, Parrokian.

18:15ean: Prozesioa.

Apirilak 22, ostirala:

08:00etan: Gurutz Bidea Santa Engrazi Ermitatik Sorkundetar Komentura.

16:30ean: Jaunaren Nekaldiaren ospakizuna, Gurutzetik jaistea parrokian.

18:15ean: Prozesioa.

Apirilak 23, larunbata:

21:30ean: Meza Santua Sorkundetar komentuan.

Apirilak 24, igandea:

11:00etan: Meza Santua Sorkundetar komentuan.

Beasain

Txahal eguna,
Txolarteren alde

Apirilaren 16an, eguerdiko 12etatik aurrera, Beasaingo plazapean, Txahal eguna izango da Txolarteren alde. Labeldun txekorra erre eta haragia eta sagardoa dastatzeko aukera izango da.



kutxa

Lazkao

Liluratura saioa, Arantxa Urretabizkaiarekin

Liluratura saioaren barruan, datorren maiatzaren 17an, Arantxa Urretabizkaiarekin izango da hizketaldi saioa. Urretabizkaiaren azken liburua, '3 Mariak' irakurri eta berari buruzko solasean aritzeko aukera izango da.

Ordizia

Artzai Eguna, apirilaren 27an

Urteko lehenengo azoka berezia izango da apirilaren 27an Ordizian: Artzain Eguna. Goizean zehar, asteroko ohiko azoka egingo da, gazta salmentarako saltokiak jarriko dira, baita Goierriko artisautza-produktuak ere eta trikitixa, dultzainero eta abarrek alaituko dute herria.

09:00etan: Ahari eta ardien erakusketa lehiaketa. Eusko Labela duen esne bildotsa burruntzian prestatzen hasiko da Karlos Ibarrondo, Garagartza plazan.

11:00etan: Artaldeak igaroko dira herrian barrena.

11:15ean: Idiazabal Gaztaren denboraldi berriaren aurkezpen ofiziala, Udaletxeko Batzar Aretoan. Larrabetzuko Azurmendi jatetxeko Eneko Atxak sukaldariak ebakiko du gazta. Aldezaurretik, gazta kalitatearen eta erregularitasunaren sariak emango dira.

11:30ean: Gazta egitea, Garagartza plazan.

11:30ean: Burruntzian erretako Eusko labeldun esne bildotsa dastatzeko aukera Garagartza plazan.

12:15ean: Ile-mozte erakustaldia, Garagartza plazan.

13:00etan: Lehiaketetako garaikurrak banatzea, Garagartza plazan.

Zaldibia

Juan Inazio Iztueta beka: lanbide zaharren azterlanak

Zaldibiaren historia, kultur ondarea, herritarren bizimoduak, lanbideak eta herritarrontzat interesgarriak izan daitezkeen lanak biltzeko helburuarekin sortu da Juan Inazio Iztueta Kultur Elkartea. Ildo horretatik, Zaldibiako lanbide eta zereginak aztertzeke helburuarekin, J.I.Iztueta beka I sortu dute.

Azterlanerako beka honetan, 16 urtetik gorako edozeinek har dezake parte. Bakarka nahiz taldeka egin daitezke azterlanak.

Azterlanaren gaia aurrez finkatuta dago eta honokoa da: Zaldibiako herritarrek, gizonezkoek bezala emakumezkoek, XX. mendean zituzten lanbideak edo zereginak (gaur egun galduak edo galtzeaz daudenak) bildu eta aztertzea: jostunak, neskametza eta morrontza lanak, sendabelarren inguruko ezagupenak zituztenak, errementariak, perratzaileak, serorak...). Lan horien egileei elkarrizketak egin eta elkarrizketa horietan jasotako informazioa edo informazio horren laburpena eta azterketa paperera ekartzea da helburua. Alegia, lanak ez dira transkribapen hutsak izango.

Lana euskaraz egin eta entregatu behar da. Paperean eta euskarri digitalean.

Eskaerak 2011ko apirilaren 29ko 13:00etarako entregatu behar dira Zaldibiako Kultur Etxean edota Udaletxean. Gehienez ere 3 orrialdeko proiektu laburra aurkeztu behar da: aztertuko diren lanbideak; elkarrizketatuko diren pertsonak; eta azterlanaren osagaiak eta izenburua. Proiektuarekin batera, kartazal itxian, azterlanaren izenburua eta barnean, eskatzailearen datuak aurkeztu behar dira.

Beka, 1.500 eurokoa izango da eta hiru zatitan ordainduko da. Epaimahaiak erabakia, 2011ko maiatzaren 31rako hartuko du. Urtebeteko epea izango du, gehienez, aztertzailerak lana entregatzeko (2012ko ekainak 12).



● Pintxo hotz eta beroak
● Ogitartekoak

Legazpi kalea, 3 ORDIZIA ☎ 943 16 03 04



- Aroztegia
- Altzariak neurrira
- PVC, aluminio eta egurrezko lehioak

Katea, 5 -Antzizar auzoa - BEASAIN
Tel.: 943 16 40 40 / 639 631 640 Faxa: 943 16 47 47
www.mueblesibaiondo.com

Goierrri

La Serradako jardunaldiak,
Irriargi elkartearen eskutik

Apirilak 16, larunbata:

10:30ean: Gaia: 'La resignacion caracterial y sus consecuencias sociales y educativas en relacion a la salud'. Hizlaria: Yolanda Gonzalez. Idiazabalgo Udaletxean.

Ataun

Pello Añorgaren ipuin kontaketa

Apirilaren 16an, larunbata, ipuin kontaketa izango da Barandiaran museoan, Ataungo San Gregorio auzoan. Goizeko 11,30etatik aurrera Pello Añorgak 'Kontu zaharrak eta berriak' ipuinak kontatuko ditu. 5 urtetik 10 urtera bitarteko hurrei dago zuzendua eta sarrera doan izango da.

Ormaiztegi

Familientzako tailerrak

Ormaiztegiko Zumalakarregi museoak, larunbatero, familientzako jarduerak edo tailerrak antolatzen jarraitzen du. Datozen bi jarduerak, honakoak dira: apirilaren 16an, olinpiadak eta apirilaren 30ean, Aste Santuko tailerrak. Jarduerak 17:30etik 19:00etara izaten dira, dohainik.

Beasain

Apirileko ekintzak

Apirilak 14, osteguna:

17:30ean: Ipuin kontaketa: 'Sirenatxoa'. Udal Bibliotekan.

19:00etan: Liburu aurkezpena: XII. Igartza saria. Igartza Jauregian.

Apirilak 15, ostirala:

22:15ean: Antzerki Garaia: 'No me hagas daño'. Usurbe Antzokian.

Apirilak 16, larunbata:

19:00etan: Bertsojaialdia: Ekaitz Goikoetxea, Iker Zubeldia, Sustrai Colina eta Amets Arzallus. Gernika Pasealekuko pilotalekuan.

Martxoak 17, igandea:

08:00etan: Mendi irteera: Beasain-Intxusti-Arkaka-Beasain. Antolatzailea: Aitzgorri Mendizale Elkartea.

Goieniz zine kluba

Apirilak 14, osteguna:

21:00etan: Zine kluba: 'Poesia'. Usurbe Antzokian.

Antzerki Garaiaren azken saioa

Apirilak 15, ostirala:

22:15ean: Tanttaka taldearen 'No me hagas daño' antzezla-na, Beasaingo Usurbe Antzokian. Sarrera: 10 euro.

Bertso saioa,
Gernika pasealekuko pilotalekuan

Apirilak 16, larunbata:

19:00etan: Bertsolariak: Sustrai Colina, Amets Arzallus, Iker Zubeldia eta Ekaitz Goikoetxea. Gai jartzailea: Igor Eguren. Antolatzailea: Arrano Kultur Elkartea.



ZEGAMA OKINDEGIA *Eskuz egindako ogi naturala*

Inbaxusti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:
Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore, TPT, Barandi Delicatessen.
Ordizia: Sabino, Muno, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana, Ainhoa dietetika, Noemi frutadenda. **Olaberria:** Lurdesen denda. **Legorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Idiazabal:** Joxan harategia, Eguzki dietetika. **Ormaiztegi:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda frutadenda, Ametsa harategia, Ekilore dietetika. **Urretxu:** Dia, Belarzin. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza, Apatxo, Txixiki, Uriarte-Pinedo.

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

ESKOLA LAGUNTZA
UNIBERTSITATE MAILA (MU)
IKASKETA TEKNIKAK
INGELERA
INFORMATIKA - MEKANOGRAFIA
IKASKETA ARAZOAK

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde 7
Beasain
943 160 120
685 722 403 - 675 006 462
ikaskide@ikaskide.net



Iñauti Hartz Klinika
ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

Goierrri

Aralarko larreen irekitze festa

Maiatzaren 1a, egun seinatua izatea da Larraitzen, Enirio-Aralar Mankomunitateak, Aralarko larreen irekitze festa antolatzen baitu. Neguan, Aralarko larreei atsedena eman ondoren, udaberriko belar berriaren bila igoko da ganadua. 12etako suziariaren inguruan, hainbat ekitaldi izango da, Larraizko aparkalekuan. Jarraian duzue egitaraua:

10:00etan: Postuen irekiera, eta Trikitilariak festa gunean zehar.

11:00etan: Ustaritzeko Gaiteroak.

11:30ean: Mendiko Behor eta Zaldien Gipuzkoako II. Lehiaketa.

12:00etan: Aralarko Larreak irekitzeko Suziria.

Ondoren: Jaialdia:

✓ Ardi-mozten marka-ahalegina: Migel M^a Sagastume 'Aimendi'. Lana: 8 ardi mozte aintzinako erara, argoraiziek.

✓ Bertsolariak: Bixente Gorostidi eta Mikel Mendizabal.

✓ Kantaria: Juan Inazio Barberia.

✓ Ustaritzeko Gaiteroak eta Mujika-Etxeberritxo trikitilariak.

✓ Abere Erakusketa, eskulangintza saioak eta bertako produktuen salmenta.

17:00etan: Erromeria Mujika eta Etxeberritxo trikitilariak.

Egun guztian Abaltzisketako Pilotalekuan Luis Erasok motozerraz egindako eskulturak ezarriko dira ikusgai eta salgai.

Beasain

Arrokako eskalada ikastaroa

Arrastaka elkartekoek bi ekintza antolatu dituzte apirilaren 16 eta 17rako. Arrokako eskaladako ikastaro teoriko-praktikoa eta Palomares mendira igoera. Larunbatean arrokako eskaladako hastapen ikastaroa Carrascal (Nafarroa) eskalada eskolan burutuko da. Igandean Palomares gailurrera (1.446m) igoko dira, Toloño mendizerrako mendirik garaionera. Abiapuntu bezala Arabako Lagran herria izango da. Gailurrera iristeko hiru ibilbide proposatzen dira zailtasun desberdinekoak.

Gabiria

Osinalde sariketa

Aztiria saritik Odei Barroso urruñarra eta Nekane Zinkunegi errezildarra. Argi Berri saritik Adur Gorostidi eta Endika Igartzabal gabiriarra. eta Axari saritik Ana Labaka eta Arrate Illaro sailkatu dira apirilaren 16an Gabirian jokatu den Osinalde sariketarako. Osinalde elkartean, 20:30ean afariaren ondoren, jokatu da bertsolari gazteen sariketa.

Ordizia

Gaztetxeko urteurreneko ekitaldiak

Apirilak 15 ostirala:

19:00etan: Feminismoaren inguruko kafe tertulia eta tailerra.

Apirilak 18-20:

09:00etan: Mendi irteerak gaztetxetik.

Apirilak 24 igandea:

Zatoz aberri egunera, Gernikan eta Baigorriin

Apirilak 28 osteguna:

19:00etan: Bideo emanaldi kritikoa: 'La vida de Moises', transexualitatearen inguruan.

Apirilak 26-27-28-29-30:

10:00etan: Auzolanak gaztetxean.

Apirilak 30 larunbata: Marasma eguna:

17:00etan: Herriko plazatik Oiangura trikitilariak.

18:00etan: Bertsolariak. (Gaitzat Marasmako ondorioak dituztela).

19:30ean: Afari merienda.

Segidan: Segidan erromeria!!

ZUGAZTIBI
AHOLKULARITZA



zugaztibi@telefonica.net

Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58

Faxa: 943 16 15 58

Domingo Unanue plaza, 5 behea
ORDIZIA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble
- ajentzia

EGUARDIZ IREKITA

9:30etik 19:00etara

ostiraletan:

9:30etik 15:00etara



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, ateak eta eskailerak neurria.



JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ

Tfnoa.: 943 67 36 11 Faxa: 943 67 36 55

Cuatrovientos Industrialdea, 1

Txarama Auzoa 20491 LEABURU



Goierrit Hartxo

Goierriko haurren aldizkaria 34. zenbakia 2011ko apirila



Goierriko Bertso Eskolak



Goierriko Bertso Eskolen eguna ospatu zuten
martxoaren 27an Idiazabalen

Etorkizuneko bertsolariak

Ordizian sortu zen 1982. urtean, Goierriko Bertso Eskola, Argi Berri elkartearen babesean. Ordizian sortu bazen ere, Goierri mailako bertso eskola izan da beti. 2007. urtera arte, Ordizian elkartzen ziren Goierriko haur bertsolariak. Goierriko hainbat udalek diruz laguntzen du Bertso Eskola.

2007. urtean dena den, Ordiziatik Goierriko hainbat herri-



60 ikasle dabilta Ordiziako,
Beasaingo, Lazkaoko, Ataungo eta
Zaldibiako bertso eskoletan.



tara zabaldu zen, hainbat udalek eskatuta. Goierriin, bost herritan daude bertso eskolak: Beasainen (3 talde), Lazkaon (2 talde), Zaldibian (talde 1), Ataunen (talde 1) eta Ordizian (2 talde). Guztira 60 ikasle dabilta. Goierriko Bertso Eskolako kide den Aitor Calvillo ordiziarrek Goierrihartxori kontatu dionez, aldaketa horri esker, “azken urteetan 20-30 ikasle izatetik, 60 izatera pasa gara”.




9 urtetik aurrera eman daiteke izena bertso eskolan. Bertsoaren neurriak, doinuak, errimak landu, aurrez kantatutako bertsoak entzun... Bakoitzak bere herrian bertsoaren oinarria ikasi ondoren, bat-batean hasi nahi duenak, Ordizian du taldea.

GoIBE eguna

Martxoaren 27an, Goierriko Bertso Eskolen eguna ospatu zuten Idiazabalen. 70 bat ikasle, irakasle, guraso eta idiazabaldar elkartu ziren. Aitor Calvillok adierazi duenez, hiru helburu nagusi ditu Bertso Eskolen egunak: “bata, ikasturtean zehar barreiatuta ditugun ikasleen elkarrezagutza; bestea, ikasturtean zehar eskolan ikasitakoak gurasoei eta herri-tarrei erakutea; eta hirugarrena, gaztetxoak GoIBEra etortzea animatzea da”. Bertsoa oinarri hartuta, antzerkia, dantza eta bertso rapa, koplak, asmakizunak... denetik izan zen Idiazabalen. Bertso Eskolen eguna Idiazabalen egitearen arrazoia hauxe da: datorren ikasturtean, Idiazabalen bertso taldea sortzea.




Kopiatu irudia



ZER IRAKURRI?

*Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteko
Irakurketa Mintegia*



Antonio Bolas

Autorea: Joxantonio Ormazabal

Ilustratzailea: Jesus Lucas

Argitaletxea: Elkar

Orrialde kopurua: 164

Hizketarako eta ateraldietarako umorea eta etorria behar dira. Zegaman bazen gizon bat hartarako talentua sobera zuena eta bere ateraldiekin liburu bat osatzea merezi izan zuena. Bere benetako izena Antonio Irigoras Agirre da, baina denek Antonio Bolas (Antonio gezurti, Antonio Kaleko...) bezala ezagutzen zuten bere herrian, Zegaman. Bere bizitzan zehar esan eta egin zituen makina bat ateraldiekin liburu bat osatu zuten. Guztiz gomendagarria gazte eta helduentzat, barre egiten ahaztu ez dezagun.

Jonasen ipuinak

Autorea: Juan Kruz Igerabide

Ilustratzailea: Mikel Valverde

Argitaletxea: Aizkorri

Orrialde kopurua: 228

Hiru urterekin hasi zuen lehen abentura Jonasek, –gogoratzen hozkailu dardartia?– eta sei bat urterekin eskaini digu azken abentura. Esan liteke Jonasek haur hezkuntza igaro duela guri abenturak eskainiz eta, koskortu delarik, agur esan digula, bere memoriak biltzen dituen 228 orrialdetako liburukote honekin. Jonas pertsonaiaren bilduma sei liburukik osatzen dute: Jonas eta hozkailu beldurtia, Jonasen pena, Jonasen iratzargailua, Jonas larri, Jonasek arazo potolo bat du eta Adio, Jonas!

7 aldeak



Elkartu puntuak

Marrazki honetan 1etik 83a dauden puntuak elkartu eta marrazki polit bat egingo duzu.



goierri artxoren
lagunak:

 **IRIZAR**





Lazkaoko jaietako soka muturra 1960. urte inguruan

Angelo Eztalak utzi digun argazkia gutxi gorabehera 1960. urteko San Prudentzio jaietan ateratakoa da. Bertan, soka muturreko xexenari helduta ageri da lazkaotar taldea.

1. Migel Albisu, 2. Tomas Arratibel, 3. Angelo Eztala, 4. Jesus Mari Bereziartua, 5. Lontxo Naldaiz, 6. Luis Aldasoro, 7. Antonio Barandiaran, 8. Gurutz Barandiaran, 9. Markos Aierdi, 10. Izagirre, 11. Luziano Ormazabal, 12. Olatz Madrazo, 13. Jose Luis Arratibel, 14. Jaime Arruabarrena, 15. Jose Luis Estala, 16. Juan Antonio Ormazabal, 17. Inazio Jabier Madrazo, 18. Imanol Auzmendi, 19. Pako Naldaiz, 20. Juanito Barandiaran, 21. Anton Insausti eta 22. Migel Erauskin.

Olagi
Sagardotegia
Jatetxea

Urte guztian zabalik
Eguneroko menua
Karta
Sagardotegiko meua

© 943 88 77 26 ALTZAGA

NELSON BARBOSA
ERREFORMAK

Gremioen koordinazioa

tel.: 687 837 011 Unzurruzaga, 9 behea **SEGURA**

ASEPLAN S.L.
AHOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA

e txekin
www.txekin.net

Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea
BEASAIN
Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Autowag

Audi

☎ 943 888 254
☎ 943 888 266
Faxa: 943 888 105
N-1 errepidea, 419 Km
BEASAIN

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak





dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

ur dan eta
oi anguren

OIANGUREN BHI
ORDIZIA

Altamira auzoa z/g
Tlfnoa.: 943 880 862
www.oianguren.net



OIANGUREN INSTITUTUA

BATXILERGOA

- Giza eta Gizarte zientziak
- Natur eta Osasun zientziak



- Aukera zabala (bi modalitate, 26 ikasgai aukeratzeko: Ekonomia, Ordenagailu bidezko diseinua, Informatika, Teknologia, Psikologia, Grekera, Laborategi teknikak...)
- Orientazio pertsonala eta akademikoa.
- Goi mailako ikasketetarako bide egokia.
- Ikasleen interesa eta prestakuntza premiei erantzun egokia.

IZEN EMATEA: maiatzaren 2tik 11ra



kalitatezko eta bertako produktuez
gozatzeko gertura zaitez
GaziGozo-ra

urdaitegia, frutak, barazkiak, edariak,
kontserbak, esnekiak...

